



EBAZPENA, 2011KO APIRILAREN 12KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ, DEIALDIA EGINDA, ALDE BATETIK, ZENBAIT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO ZUMARRAGAKO IBAIONDO IKASTETXEAN 2011-2012EAN,

Zumarragako Ibaiondo heziketa-zentroa Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren mendekoa da, eta Gazte Justiziako zentroen sarearen barruan dago, horren helburua izanik adin gabekoak internamendu-araubidean hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Adingabekoen Epaitegiek emandako neurri askatasun-gabetzaileak bete behar badituzte.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2001eko azaroaren 7ko Aginduaren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren zentroetan epaiaren zain dauden adingabekoen eta zigortuta daudenen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dira. Agindu horren 2. artikulua arabera, Gipuzkoako Zumarraga heziketa-zentroak badu baimena Eskolatzeko Programa Osagarriak eta Lanbideko Hastapenetako Programak emateko iguruko ikastetxe batean sartzerik ez duten ikasleei.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatuak, bere 54. artikuluan arautzen du hori eta, ordezkatzeko izaeraz, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, Araudi Orokorra onartu baitu Langileak Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzea eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzea eta lanbide-igoera erregulatzeko.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Egitura organikoa ezarri duen irailaren 23/10 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Deialdi honen xedea da, alde batetik, zerbitzu-eginkizunetan betetzea gelako irakasle-lanpostu, Zumarragako Ibaiondo heziketa-zentroan zerbitzuak eman ditzaten.

Gela	Zientzia-Teknologia arloko langileak, Bigarren Hezkuntza/Batxilergoko klaseetarako.	2 HE
------	---	------

Bigarrena.- Gelako irakasle-lanpostuei dagokienez, deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako kidegoko karrerako funtzionarioek edo egokitzapen hori eta mugagabeko lan-kontratu dutenek. Era berean, duten bitarteko funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, baina karrerako funtzionarioek eta mugagabeko lan-kontratudunek lehentasuna izango dute, betiere.

Baldintzak betetzen dituzten izangaiei elkarrizketa baterako dei egingo zaie, Eranskinaren 1. puntuan ezarritako gaitasunak aztertzeko.

Laugarren artikuluan ezarritako balorazio-batzordeak aholkulariak izan ditzake elkarrizketa horiek egiteko.

Hirugarrena.- Deitzen diren zerbitzu-eginkizunak eskatu nahi dituzten langileek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariari bidali beharko diote eskabidea, eta Hezkuntzako lurralde ordezkarietara aurkeztu, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak



(urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak) bere 38. artikuluan aipatutako edozein erregistrotan. Eskabideekin batera, eskatutakoa betetzen dela eta alegatzen diren merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira (jatorrizko dokumentazioa edo behar bezala konpultsatua), **2011eko apirilaren 27a baino lehen**.

Aurkez daitezke halaber, Eusko Jaurlaritzaren herritarrei arreta emateko edozein bulegotan, Zuzenean, ondoko helbide hauetan: Bizkaian, Gran Vía 85, 48011 Bilbo; Gipuzkoan: Andia 13, 20003 Donostia, eta Araban: Ramiro de Maeztu 10 behea, 01008 Vitoria-Gasteiz. Era berean, bulegotan informazio eta telefono-arreta eskatu ahal izango da zenbaki hauetan: EAE-tik: 012; EAE-tik kanpoko deiak: 945 018000, eta atzeritik: 00 34 945 018000

Laugarrena.- Langileriaren Kudeaketa zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, batzorde batek proposamena egin ondoren. Honako hauek izango dira batzorde horretako kide:

- ▶ Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko bi ordezkari.
- ▶ Ibaiondo zentroko zuzendaritza-taldearen ordezkari bat.
- ▶ Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko hiru ordezkari; horietako bat Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ordezkaria izango da, eta idazkari arituko da.

Era berean, irakaskuntzan ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da batzordean.

Bosgarrena.- Hautagaien merezimenduak deialdi honetako eranskinean argitaratutako baremoaren arabera neurtuko dira.

Seigarrena.- Barematu eta gero, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da deialdiaren behin-betiko ebazpena. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangaiei emandako puntuazioak azalduko dira, eta hiru laneguneko epea irekiko da erreklamazioak egiteko.

Zazpigarrena.- Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, aukeraketa-batzordeak Langileriaren Kudeaketa zuzendariari helaraziko dio deialdi honen ebazpen-proposamena. Horrekin batera, honako hauek ere helaraziko dizkio: behin betiko akta edo aktak, izangai bakoitzaren merezimenduei emandako balioespenak jasotzen dituen, eta hautatuen azken zerrenda.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak hautagaiei buruzko behin betiko ebazpena emango du, eta Hezkuntzako web orrian eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

Zortzigarrena.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jatorrizko lanpostuari dagozkion lansariak ordainduko dizkie hautatutako izangaiei.

Bederatzigarrena.- Ordutegia goiz eta arratsaldekoa izango da, astelehenetik ostiralera, ikasturte-hasierari buruzko arauak egokitua. Indarrean dagoen akordio erregulatuaren arabera ezarriko dira lau baldintzak

Hamargarrena.- Hautatutako karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizunak emango zaizkie aipatu lanpostuak 2011-12 ikasturtean betetzeko. Lan-kontratudunak izatekotan, lanpostu horiek betetzeko aldi baterako atxikipena egingo zaie (2011-12 ikasturtean)

Hamaikagarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak hurrengo ikasturteetarako ere luza daitezke, Ibaiondo zentroko zuzendaritza-taldeak txostena eman eta gero.



Hamabigarrena.- Ebazpen honek araupetzen ez duenari dagokionez, prozedura mailako aplikazio osagarri gisa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, erabiliko da.

Eskatzaileek emandako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira deialdi hau kudeatzeko. Langileria Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeko nahiz aurka egiteko eskubideaz baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Sinatzaileak berariaz baimena ematen du bere datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, deialdiaren izapideak betetzeko, baimena ematen du datuok argitara emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki tauletan.

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011eko apirilaren 12an

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Juan Manuel Aramendi Arteaga



ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Elkarrizketa: (gehienez 8 puntu)

Ondoko gaitasunak izan beharko dituzte izangaiek:

- **Erantzukizuna eta ekimena:** erabakiak hartzea larrialdietan, konpromisoak eta ardurak bereganatzea.

- **Malgutasuna:** hainbat egoera eta pertsonari egokitzeko gaitasuna, desberdinarekiko tolerantzia, errespetua eta aurreiritziak kontrolatzea.

- **Lanbide-erantzukizuna:** lanpostua ezagutzea, rola bereganatzea, ahalegina eta dedikazioa, zailtasunak eta ondorioak ezagutzea, buru belarri aritzea.

- **Heldutasun emozionala:** Egonkortasun emozionala, frustrazioari aurre egitea, gatazketan argi eta garbi aritzea, zailtasunekiko jarrera baikorra.

- **Erakundearekiko konpromisoa:** ikastetxe-proiektu global baten barruan aritzea lanean, funtzionamendu-arau eta -erregelak onartzea, gainerako profesionalekiko kohesioa, talde-lana.

2. Lanbide-esperientzia: (8 puntu, gehienez ere)

Adingabekoentzako harrera-, babes- edo erreforma-zentroren batean gelako edo lantegiko maisu/maistra zereginetan edo hezitzaileenetan lanean aritu izana: urte bakoitzeko 2 puntu.

Lanbide Hastapeneko, Osabidezko Hezkuntzako eta abarreko zentroren batean lan egin izana: urte bakoitzeko puntu bat.

Bigarren Hezkuntzako, Helduen Etengabeko Hezkuntzako eta abarreko zentroren batean lan egin izana: urte bakoitzeko 1/2 puntu.

3. Titulazio akademikoak eta beste prestakuntza-ikastaro batzuk: (4 puntu, gehienez ere)

Ikastaro espezifikoko bakoitzeko 2 puntu, baldin eta iraupena 101 eta 200 ordu bitartekoa bada, gaia, berriz, gazte arau-hausleei edota nerabe edo gazteentzako egoitza-zentroei buruzkoa, eta zentro ofizialek edo unibertsitateek ematen badute. Ikastaroa erakunde ez-ofizialek emana bada, gehieneko puntuazioa ikastaro bakoitzeko puntu bat izango da.

Ikastaro espezifikoko bakoitzeko 2 puntu, baldin eta iraupena 201 orduetik gorakoa bada, gaia, berriz, gazte arau-hausleei edota nerabe edo gazteentzako egoitza-zentroei buruzkoa, eta zentro ofizialek edo unibertsitateek ematen badute. Ikastaroa erakunde ez-ofizialek emana bada, gehieneko puntuazioa ikastaro bakoitzeko bi puntu izango da.

